


BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan guk geuk ikusten dugun beharrari aurre egiteko eskainiko dugun produktua aurkeztu eta deskribatuko dizuegu.

Gure ideia 2021eko udan hasi zen. Garai haietan utzi genion musukoa erabiltzeari kalean, derrigorezkoa izateari utzi ziolako. Ondorioz, ikusi genuen arazoa zen musukoa etxean ahazten zitzagula askori eta taberna, liburutegi, zinema... edo edozein toki itxi batera sartu nahi genuenean ezin genuela bertara sartu musukorik ez genuelako. Arazo hau behin edo behin guztiori gertatu zaigula ikustean, konponbide bat eman behar geniola adostu genuen.




Honetarako, zenbait tokitan musuko-saltzaileak jartzea erabaki genuen. Horrela etxean maskara ahazten bazaigu, etxera bueltatu beharrean, gure ustez, beste bat erostea da konponbiderik egokiena.



Gure zerbitzua Goierriko hainbat zinema, ikastetxe, liburutegi, zinema, taberna... eta horrelako beste hainbat tokietan ezarriko dugu. Horrela goierritarrek ez dute arazorik izango etxetik musuko gabe ateratzen badira, eta horrelako tokiren batera sartu nahi badute; izan ere, gure musuko-saltzaiean bat erosi dezakete, etxera musuko baten bila joan behar izan ordez.

Bestalde, saltzaile bakoitzean musuko bateko 30 pakete egongo dira, 2 musukoko 30 pakete eta 4 musukoko beste 30 pakete. Horrela hasieran musuko-saltzaile bakoitzean 210 maskara egongo dira; hau da, musuko-saltzailea beteta dagoenean 210 maskara egon behar dira bertan.

Bestalde, gure proiektua gehienbat helduentzat izango da, 20 eta 40 urte bitartekoak; izan ere horiek dira zinemara, tabernetara eta horrelako beste tokietara joaten direnak. Baina gure zerbitzua ere 10 urtetik gorako umeentzat egongoda bideratuta; izan ere, ikastoletan ere jarriko ditugu eta uste dugu adin horretatik aurrera gai izango direla guk eskaintzen dieguna



erabiltzen; hau da, musuko-saltzaileetan musuko bat erosi ahal izango dutela uste dugu.

Gure egitasmoa 50 bat enpresatan jartzea da lehenengo helburua, hau da, 50 ikastola, taberna, zinema, liburutegi... eta horrelako beste zerbitzuren batean jartzea nahi dugu. Geroz eta enpresa gehiago batu gure egitasmora, geroz eta hobeago izango dela uste dugu.

Gure proiektua aurrera ateratzeko, ezinbestekoa dugu musuko-saltzaileak fabrikatzen eta saltzen dituen enpresa batekin arremanetan jartzea, beharrezkoak baititugu gure egitasmorako. Ezinbestekoak ditugu ere musukoak, ondorioz, musukoak ekoizten eta saltzen dituen enpresa batekin arremanetan egotea ere ezinbestekoa izango da, musukoak erosi ahal izateko eta ondoren gure musuko-saltzaileetan saldu ahal izateko.



Horrelako proiektu batean publizitatea egitea ezinbestekoa da, horregatik hainbat tokitan publizitatuko gara; hala nola irratian, telebistan eta hainbat sare sozialetan ere kontuak irekiko ditugu, gure proiektua gizarteak ezagutarazteko. Uste dugu Goierrin gehien entzuten den irati-emisorea Gaztea dela, eta ETB telebista kanal ikusiena, ondorioz bertan publizitatuko gara. Bestalde, sare sozial famatuenak Instagram eta Youtube direnez, bertan publizitatuko gara ere bai.

Gure proiektua berria izango da gure inguruan; izan ere, ez dago musuko-saltzailerik inguruan. Ondorioz, uste dugu gure egitasmoak arrakasta izango duela, eta gizartean eragina izango duela. Gainera, kalean musukoaren erabilera derrigorrezkoa ez denez ez da beharrezkoa gehiagorik erostea; izan ere, gure maskara-saltzaileetan erostearekin nahikoa izango da toki itxi batera sartu nahi badugu.

Bukatzeko, gure proiektuaren helburu nagusia ez da bakarri musukoak saltzea, COVID-19 eraginez hartu beharreko segurtasun-neurriak betetzea, hau da, toki itxietan musukoa jantzita eramatea, ere gure helburu nagusietako bat da. Horrela kutsaketak murriztea eta ospitaleak eta ZIUak ez betetzea nahi dugu. Hau lortuko bagenu, biztanleria lasaiago biziko lirateke; izan ere, ez lirateke osasun-neurri askorik egongo eta, pandemia aurretik bezala, nahiko genukeena egin ahalko genuke, orain ez bezala.